



EBAZPENA, 2019ko irailaren 4koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2019ko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak emateko dena.

Hezkuntza sailburuaren 2018ko azaroaren 20ko Aginduaren bidez (abenduarien 5eko EHAA, 234. zk.), 2019ko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzen deialdia egin zen.

Deialdi horretan aurkeztutako eskabideak ikusi dira.

Hautapen Batzordeak agindu-deialdiaren 10. eta 11. artikuluek ezarritakoaren arabera egindako esleipen-proposamena ikusi da.

Horiek horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ebazpen honen 1. eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren dirulaguntzak ematea ekipamendu zientifikoa eskuratzeko.

Bigarrena.- Ebazpen honen 2. eranskinean ageri diren eskabideak ezestea, bertan adierazitako arrazoiengatik.

#### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 4an.

  
  
ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
Ikerketa eta Unibertsitate sailburuordea